

Hemen izango ditugun kostuak azalduko ditugu. Gure negozioa aurrera ateratzeko kostu hauek ezinbestekoak izango dira guretzat, ahalik eta gehien ekoiztu eta saltzea ahalbidetuko digutelako epe luzera. Azken finean, gure helburua enpresa haztea izango da.

Hiru sailetan banatuko ditugu, hasierako kostuak, kostu finkoak eta kostu aldakorrak.

Hasierako kostuak: zerbitzuak emateagatiko hartzekoduna (web-orrialdea sortzeko egin behar dugun ordainketa), makineria (josteko makina, kutxa erregistratzailea, datafonia...), informazioaren prozesamendurako ekipoa (mugikorra, ordenagailua), altzariak

Kostu finkoak: lokalaren alokairua, soldatak, Internet sarea eta telefono lineak

Kostu aldakorrak: zerbitzuak emateagatiko hartzekoduna (garraioa enpresarekin kontratua egiterako orduan, saltzen dugun produktu kopuruaren arabera ordainduko dugu.) lehengaiak

Hauek dira hasiera batetik aurreikusi ditugun kostuak. Posiblea da denbora aurrera joan ahala kostu berriak agertzea.